

ikus puntua



Bizkaiko ekonomia La economía de Bizkaia #13 ekaina/junio 2007

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:

www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com

13

Behatokia		Observatorio
Nazioarteko ekonomiak egoera bikaina bizi du une honetan eta Bizkaiko ekonomian ere nabari da baikortasun hori, izan ere, barne eskariak gastua bultzatzen jarraitzen du eta kanpo merkataritzak hoberantz egin du.	+	La economía de Bizkaia participa de la excelente coyuntura internacional, con una demanda interna que continúa tirando del gasto a la que se suma el buen tono del comercio exterior.
Industriaren Konfiantza Adierazleak bilakaera positiboa izan du eta horrek argi erakusten digu industriaren azpisektore produktibo nagusiak hobetu egin direla.	+	La positiva evolución del Indicador de Confianza de la Industria refleja la mejora generalizada en los principales subsectores productivos que la componen.
Ehuneko 16 puntu jaitsi da eskabide-zorroa txikitu egin dela dioten enpresen kopurua.	+	Disminuye el porcentaje de empresas que ven disminuir su cartera de pedidos en 16 puntos porcentuales.
Eraikuntzaren sektoreko jarduerak handia izaten jarraitzen du, nahiz eta pixkanaka moteltzen ari den.	+	La actividad en el sector de la construcción , aunque paulatinamente se va moderando, se mantiene aún alta.
Zerbitzuen sektorean aipagarria da txikizkako merkataritzak izan duen hobekuntza.	+	En el sector de servicios , destaca la notable mejora del comercio minorista.
Hazkunde moderatuak erregistratu dira portuko eta aireportuko salgai eta bidaiarien trafikoa.	+	Tanto el Puerto como el Aeropuerto presentan crecimientos moderados en sus tráfico de mercancías y pasajeros.
Bizkaiko kanpo merkataritzaren bilakaerari esker murriztu egin da merkataritza defizita.	+	La evolución del comercio exterior de Bizkaia permite reducir el déficit comercial.
2007ko lehen hiru hilabeteetan 1.124 enpresa berri sortu dira Bizkaian, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 258 enpresa gehiago.	+	En el primer trimestre de 2007 se crearon en Bizkaia un total de 1.124 nuevas empresas , cifra que supone un aumento de 258 sociedades con relación al mismo período del año anterior.
orain arteko jaitsiera joerarekin jarraitzen du eta %4,1ean kokatu da.	+	Se mantiene la tendencia descendente de la tasa de paro , que se sitúa en el 4,1%.
Azken aurreikuspenen arabera, ekonomiaren dinamismo honek urte osoan zehar iraungo omen du, nahiz eta motelduz joango den, hala ere, hazkunde tasak handiak izango dira.	=	Las últimas previsiones apuntan a que el dinamismo se va a mantener a lo largo del año, con un cierto perfil de desaceleración, si bien, en un contexto actual de elevadas cotas de crecimiento.

Industria


Industriaren sektoreak azken hilabeteetako joera positiboarekin jarraitzen du eta, hala, igoerak erregistratu dira industriaren produkzio sektore gehienetan.

Industriaren Konfiantza Adierazlea nabarmen hobetu da (12 puntu gehiago erdietsi ditu) aurreko urteko aldi beraren aldean, hala ere, badirudi hazkunde erritmoa moteldu duela.

Industria

El sector industrial mantiene el tirón de los últimos meses, con aumentos generalizados en la mayoría de los sectores productivos.

La situación del Indicador de Confianza de la Industria es claramente más positiva (12 puntos superior) que en el mismo período del pasado año, aunque parece apreciarse una cierta ralentización de su ritmo de crecimiento.



Inkestatutako enpresen %88k (%72 2006an) adierazi dute produkzioa hazi egin dela edo bere horretan mantendu dela 2007ko lehen bihilekoan eta aurreikuspen onak iragarri dituzte hurrengo hilabetei begira.

Eskabide-zorroak bilakaera positiboa izan du, hala, enpresen %18k (%11 2006an) adierazi dute beren eskabide-zorroek egokitzat jotzen den maila gairatuta; gainera, jaitsi egin da eskabide-zorroa egokitzat jotzen dena baino txikiagoa izan dela adierazi duten enpresen kopurua (%19, 2006ko %35aren aldean).

Produkzio gaitasunaren erabilera %88koa izan da, 2006ko lehen bihilekoan erregistratutako %86aren aldean.

Saldo garbi positiboak iragarri dira aztertutako aldagai guztietan, eta gehienak ustez egonkortasuna izango da nagusi. Enpresen %36k adierazi dute produkzio handiagoa izango dutela, %30k eskabide-zorroa hobea eta %37k salmenta gehiago izango dituztela. Enpresen %41k joera inflazionista iragarri dute salmenta prezioen bilakaerari dagokionez eta, azkenik, %77k enpleguak egonkor eutsiko diola adierazi dute.

Eraikuntza

Eraikuntzaren sektoreko jarduerak handia izaten jarraitzen du, nahiz eta pixkanaka moteltzen ari den. Jarduera maila handi hau lizitazio ofizialari zor zaio, hazten jarraitzen baitu inbertsio publikoari esker. Ildo horretatik, lizitazio ofiziala %67,4 hazi da (%32,9 obra zibila eta %112,5 eraikuntza).

Bestalde, 2006ko aldi berarekin konparatuz, urtearen lehen hiru hilabeteetan hasitako babes ofizialeko etxebizitzak -%45,4 jaitsi dira eta etxebizitza libreak -%7,4. Dena den, okupazio mailaren kopuruak positiboak dira, izan ere, 2007ko lehen hiru hilabeteetan okupazioa %14,9 hazi da.

La producción aumenta o se mantiene estable en el primer bimestre de 2007 en el 88% de las industrias encuestadas (72% en 2006), presentando además unas perspectivas muy favorables.

Por lo que respecta a la cartera de pedidos, ésta mantiene un buen nivel, con un 18% de las empresas que la considera superior al nivel adecuado a su capacidad productiva (11% en 2006) y reduciéndose además el porcentaje de empresas que considera dicha cartera inferior a la adecuada (19% frente a 35%).

La utilización de la capacidad productiva se sitúa en el 88%, un nivel superior al 86% del primer bimestre de 2006.

Las expectativas muestran saldos netos positivos en todas las variables analizadas, aunque la opción mayoritaria apuesta por la estabilidad. Así, se anticipa un crecimiento más acentuado de la producción en el 36% de las empresas, con incremento en la cartera de pedidos y las ventas en el 30% y 37%, respectivamente. Como aspecto negativo, cabe destacar que las expectativas de evolución de los precios de venta son inflacionistas para el 41% de las empresas. Por último, un 77% apunta a que el empleo se mantendrá estable.

Construcción

La actividad en el sector de la construcción, aunque paulatinamente se va moderando, se mantiene aún alta, apoyada especialmente en una licitación oficial que crece gracias a la inversión pública. De este modo, la licitación oficial se incrementa en un 67,4% (32,9% obra civil y 112,5% edificación).

Por otra parte, con respecto al mismo período de 2006, tanto las viviendas de protección oficial iniciadas a lo largo del primer trimestre del año como la construcción de viviendas libres se reducen, en un -45,4% y en un 7,4% respectivamente. No obstante, las cifras de ocupación en el sector son positivas, así, en el primer trimestre de 2007 la ocupación aumenta en un 14,9%.

Zerbitzuak


Zerbitzuen sektorean merkataritzak hobekuntza nabarmena izan du eta turismoak eta garraioak hazkunde moderatua izaten jarraitzen dute.

Bizkaiko Merkataritzaren Konfiantza Adierazlearen Inkestako emaitzak esanguratsuki hobetu dira 2007ko lehen hilabeteetan. Hauek dira hobekuntza horren arrazoi nagusiak: salmenten kopuru hobe, biltegiatze maila egokiagoa eta aurreikuspen hobeak.

Servicios

En el sector de servicios el comercio apunta una notable mejora y el turismo y el transporte mantienen un moderado crecimiento.

Los resultados de la Encuesta de Coyuntura del Comercio Minorista de Bizkaia mejoran con claridad en los primeros meses de 2007. La recuperación se apoya principalmente en la mejora de las ventas, la adecuación de los almacenamientos y en unas mejores perspectivas.



Bizkaiko Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea

Oharra: Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea Bilboko Merkataritza Ganberaren Merkataritza Abagunearen Inkestatik lortzen da eta enpresen uneko egoera eta negozio igurikapeak aztertzen ditu.

Iturria: Bilboko Merkataritza Ganbera.


Indicador de Confianza del Comercio de Bizkaia

Nota: el Indicador de Confianza del Comercio se realiza a partir de la Encuesta de Coyuntura Comercial que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao y mide la situación actual y las expectativas de negocio de las empresas.

Fuente: Cámara de Comercio de Bilbao.

Merkataritzaren Konfiantza Adierazlearen ildo beretik, Bizkaiko aisi-turismo sektoreak ere eboluzio positiboa izan du 2007ko lehen hiru hilabeteetan. Aldi honetan 193.004 bidaiari erregistratu dira guztira Bizkaian, hau da, termino absolutuetan aurreko urteko aldi berean baino 13.376 (%7,4) bidaiari gehiago. Gau-igarotzeen hazkunde antzekoa izan da (%7,6), hartara, 347.797 gau-igarotze erregistratu dira 2007ko urtarril-martxoan (323.109, 2006an). Martxoan batez beste emandako egun kopurua 1,82 izan da eta okupazio maila %42,06.

En consonancia con la evolución del Indicador de Confianza del Comercio, en los tres primeros meses de 2007, el sector de ocio-turismo de Bizkaia evoluciona positivamente. Así, en dicho período Bizkaia acogió un total de 193.004 visitantes, lo que supone un crecimiento en términos absolutos de 13.376 personas (7,4%). La tasa de crecimiento de las pernoctaciones fue muy similar (7,6%), alcanzando un total de 347.797 en enero-marzo de 2007 (323.109 en 2006). En marzo, la estancia media fue de 1,82 días y el grado de ocupación del 42,06%.



Bidaiaarien eta hotel-establezimenduetan igitartako gauen eboluzioa

Bidaiaariak
Gau Igarotzeak

*urtarril-martxo
Iturria: Eustat

Evolución de viajeros y pernoctaciones en establecimientos hoteleros

Viajeros
Pernoctaciones


*enero-marzo
Fuente: Eustat

Azpiegiturak

2007ko lehen hiru hilabeteetan Bilboko Portuko salgaien trafikoa %2,5ekoa izan da guztira eta 8,8 milioi tona erregistratu dira, hots, 2006ko urtarril-martxoan baino 0,2 milioi tona gehiago. Deskargatutako merkatugaiak, guztizko trafikoaren ia hiru laurden direnak, batez bestekoa baino gutxiago hazi dira (%1,8). Aldiz, kargatutakoek hazkunde tasa handiagoa izan dute (%4,3).


Infraestructuras

El incremento del tráfico de mercancías en el Puerto de Bilbao en los tres primeros meses de 2007 se ha situado en un 2,5% hasta alcanzar un total de 8,8 millones de toneladas, 0,2 millones de toneladas más que en enero-marzo de 2006. Las mercancías descargadas, que suponen casi las tres cuartas partes del tráfico, muestran una tasa de crecimiento inferior a la media (1,8%). Por último, las mercancías cargadas se incrementaron de un modo más elevado (4,3%).



2007ko lehen hiru hilabeteetan 13.848 lagunek erabili dituzte Bilbo-Loiu Aireportuan lurreratu eta bertatik irten diren hegazkinak. Horrela beraz, %6,2ko eta %3,8ko hazkundeak erregistratu dira hurrenez hurren, eta 2006ko geldialdiaren ostean, badirudi erabiltzaile kopurua zertxobait suspertzen ari dela. Nazioarteko hegaldietan erabiltzaile kopuruaren hazkundea %7,5ekoa izan da eta naziokoetan %5,9koa.

Durante el primer trimestre de 2007 un total de 839.098 personas utilizaron los 13.848 aviones que aterrizaron o despegaron del Aeropuerto de Bilbao-Loiu. Estas cifras suponen incrementos del 6,2% y 3,8%, respectivamente, y permiten pensar que, después del estancamiento de 2006, se está produciendo una moderada recuperación. El crecimiento del movimiento de pasajeros en vuelos internacionales ha sido del 7,5% y en los nacionales del 5,9%.



Kanpo merkataritza


2007ko urtarrelean Bizkaiko kanpo merkataritzak bilakaera positiboa izan du, hala ere, ez da izan 2006ko urtarrelean bezain dinamikoa. Hartara, 568,1 milioi euroko esportazioak egin dira eta %8,8ko hazkunde tasa izan dute (%31 2006an); inportazioak 834,3 milioi eurokoak izan dira eta %1,7ko hazkundea izan dute (%12,1 2006an). Bilakaera positibo honi esker merkataritza defizita 32 milioi euro murriztu da eta -266,2 milioi eurotan kokatu da.

Produktu energetikoen esportazio eta inportazioak jaitsi egin dira, aitzitik, produktu ez energetikoen kanpo merkataritzak dinamismo handiagoa erakutsi du (kasu honetan, esportazioak %13,4 hazi dira eta inportazioak %27,7).

Comercio Exterior

El comercio exterior de Bizkaia muestra en el mes de enero de 2007 un comportamiento positivo, aunque menos dinámico que en el mismo período de 2006. De este modo, se han realizado exportaciones por un valor de 568,1 millones de euros, con un porcentaje de crecimiento del 8,8% (31% en 2006), y las importaciones se situaron en 834,3 millones con un incremento del 1,7% (12,1% en 2006). Esta evolución ha permitido reducir el déficit comercial total en 32 millones de euros, situándolo en -266,2 millones.

Tanto las exportaciones como las importaciones de productos energéticos reducen sus valores mientras que, por el contrario, el comercio exterior de productos no energéticos muestra un mayor dinamismo (incremento del 13,4% en las exportaciones y del 27,7% en las importaciones).



Enpresa dinamismoa


2007ko urtarril-martxoan 1.124 sozietate berri sortu dira Bizkaian eta jarritako kapitala 277 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko batez besteko kapitala 246.453 eurora iritsi da. Horrek esan nahi du aurreko urteko aldi berean baino 258 enpresa gehiago dagoela (harako hartan 866 konpainia zeuden).

Sortu berri diren enpresa gehienak zerbitzuen sektorekoak dira, %72 alegia, eta 236 sozietate gehiago dago. Eraikuntzaren sektorean 215 enpresa sortu dira, hau da, 2006ko lehen hiru hilabeteetan baino 48 gehiago. Industriari dagokionez, 93 enpresa berri daude, hots, 2006an baino 28 gutxiago, eta jaitiera honen arrazoia energia fotovoltaikoa ekoizten duten enpresa kopuru txikiagoan datza. Aitzitik, manufaktura industriak %107,1 hazi dira eta 42 baziren 2006ko urtarril-martxoan, 87 izatera iritsi dira 2007ko aldi berean.

Dinamismo empresarial

En el período enero-marzo de 2007 se han creado en Bizkaia un total de 1.124 nuevas sociedades con un capital total aportado de 277 millones de euros, lo que supone un capital medio por empresa de 246.453 euros. Estas cifras suponen un incremento en 258 empresas sobre la cifra del mismo período del pasado año que se situó en 866 compañías.

Entre las empresas creadas, un 72% corresponde a las actividades relacionadas con el sector de servicios, éstas crecen en 236 sociedades. En el sector de la Construcción se han constituido 215 empresas, 48 más que en el primer trimestre de 2006. Por lo que se refiere al sector industrial, se crearon 93 empresas, 28 menos que en 2006, la diferencia viene originada por la disminución de creación de empresas dedicadas a la generación de energía fotovoltaica. Por el contrario, las industrias manufactureras se han incrementado un 107,1%, pasando de 42 en enero-marzo de 2006 a 87 en el mismo período de 2007.



Lan merkatua


2007ko lehen hiruhilekoan Bizkaiko langabezi tasa %4,1ekoa izan da, hots, 2006ko lehen hiru hilabeteetan baino 1,1 puntu beherago kokatu da, eta azken hiruhilekoan baino hamarren bat gorago. Nolanahi ere, EAEko langabezi tasa (%3,4) baino gorago dago oraindik ere.

Landunen kopurua %2,7 hazi da eta guztira 12.900 pertsona egon dira lanean. Langabetuak 21.300 dira eta, beraz, -%35,1 jaitsi da urtearteko tasa; martxoaren amaieran 11.500 langabetu gutxiago erregistratu dira Bizkaian.

Mercado de trabajo

La tasa de paro de Bizkaia en el primer trimestre de 2007 fue de un 4,1%, lo que supone situarse 1,1 puntos por debajo del nivel del primer trimestre de 2006, ésta supera en una décima la correspondiente al último trimestre de dicho año. En todo caso, aún se mantiene por encima de la tasa de paro del conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi (3,4%).

El número de personas ocupadas aumentó en un 2,7%, incrementándose en 12.900 la cifra de personas con trabajo. El total de parados se situó en 21.300 personas, lo que significa una disminución en tasa interanual del -35,1%, por lo que al finalizar marzo había 11.500 desempleados menos en nuestro Territorio Histórico.



BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK	Iturria	Epea	2006	2007	% variac.
JARDUERA					
- Industriaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Urtarrila-otsaila	-5	7	--
- Industri Produktzioaren Indizea (1)	EUSTAT	Urtarrila-martxoa	7,6	3,4	--
- Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh)	IBERDROLA	Urtarrila-martxoa	2.170	2.169	0,0
- Produktzio Gaitasunaren Erabilera (%)	CCB	Urtarrila-otsaila	86	88	--
- Eskabide-zorroa (2)	CCB	Urtarrila-otsaila	-24	-1	--
- Lizitazio Ofiziala (milioi euro)	SEOPAN	Urtarrila-martxoa	146	244	67,4
- Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.)	AUT. PORT.	Urtarrila-martxoa	8.704	8.920	2,5
- Loiuako Aireportuko bidaiarien Trafikoa (milaka pertsona)	AENA	Urtarrila-martxoa	790	839	6,2
- Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona)	EUSTAT	Urtarrila-martxoa	323	348	7,7
- Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Urtarrila-otsaila	-23	0	--
ESKABIDE ETA PREZIOAK					
- Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	FCVN	I. hiruhilekoa	97	98	--
- Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-abendua	7.474	7.262	-2,8
- Industri Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-abendua	1.793	1.789	-0,2
- Bizkaiko KPI	INE	Abendua	89,9	101,5	2,6
- Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	123,2	128,8	4,5
LAN MERKATUA					
- Biztanle Okupatuak (milaka pertsona)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	484,2	497,1	2,7
- Biztanle Langabetuak (milaka pertsona)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	32,8	21,3	-35,1
- Langabezi Tasa (%)	EUSTAT	I. hiruhilekoa	6,3	4,1	--
- Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona)	INEM	Martxoa	51,2	40,9	-20,1
- Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona)	MTAS	Martxoa	469,7	482,0	2,6
KANPO SEKTOREA					
- Esportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila	522	568	8,8
- Inportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila	820	834	1,7
ENPRESA DINAMISMOA					
- Sozietateen sorrera	CCB	Urtarrila-martxoa	866	1.124	29,8

- (1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza

INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA	Fuente	Período	2006	2007	% variac.
ACTIVIDAD					
- Indicador de Confianza de la Industria	CCB	Enero-febrero	-5	7	--
- Índice de Producción Industrial (1)	EUSTAT	Enero-marzo	7,6	3,4	--
- Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh)	IBERDROLA	Enero-marzo	2.170	2.169	0,0
- Utilización de la Capacidad Productiva (%)	CCB	Enero-febrero	86	88	--
- Nivel de la cartera de pedidos (2)	CCB	Enero-febrero	-24	-1	--
- Licitación Oficial (millones euros)	SEOPAN	Enero-marzo	146	244	67,4
- Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.)	AUT. PORT.	Enero-marzo	8.704	8.920	2,5
- Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas)	AENA	Enero-marzo	790	839	6,2
- Pernotaciones en hoteles (miles de personas)	EUSTAT	Enero-marzo	323	348	7,7
- Indicador de confianza del Comercio	CCB	Enero-febrero	-23	0	--
DEMANDA Y PRECIOS					
- Índice de confianza del Consumidor	FCVN	I trimestre	97	98	--
- Matriculación de Automóviles	DGT	Enero-dic.	7.474	7.262	-2,8
- Matriculación de Vehículos Industriales	DGT	Enero-dic.	1.793	1.789	-0,2
- IPC Bizkaia	INE	Diciembre	89,9	101,5	2,6
- Índice de Ventas del Comercio Minorista(3)	EUSTAT	I trimestre	123,2	128,8	4,5
MERCADO LABORAL					
- Población Ocupada (miles personas)	EUSTAT	I trimestre	484,2	497,1	2,7
- Población Parada (miles personas)	EUSTAT	I trimestre	32,8	21,3	-35,1
- Tasa de Paro (%)	EUSTAT	I trimestre	6,3	4,1	--
- Paro registrado (miles personas)	INEM	Marzo	51,2	40,9	-20,1
- Afiliados a la Seguridad Social (miles personas)	MTAS	Marzo	469,7	482,0	2,6
SECTOR EXTERIOR					
- Exportaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero	522	568	8,8
- Importaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero	820	834	1,7
DINAMISMO EMPRESARIAL					
- Creación de sociedades	CCB	Enero-marzo	866	1.124	29,8

- (1) Incremento con relación al mismo período del año anterior. Datos corregidos a efecto de calendario
(2) Saldo neto de respuestas
(3) Incremento acumulado sobre el mismo periodo del año anterior

